# Xedapen Orokorrak

## NEKAZARITZA, ARRANTZA ETA ELIKADURA SAILA

### 5257

290/2005 DEKRETUA, urriaren 11koa, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Sailaren egitura organikoa eta egitekoena finkatzen duena.

Legebiltzarrean 2005eko ekainaren 22an egindako inbestidura-eztabaidan azaldu zuen Lehendakariak bere Gobernu Programa berria eta, ondoren, 2005eko ekainaren 27an, VII. Legealdiko Eusko Jaurlaritza osatzeko koalizio-hitzarmena sinatu zen. Gobernu berriaren administrazio-egitura dekretu honen bidez diseinatu zen: 8/2005 Dekretua, ekainaren 27koa, Lehendakariarena, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituena eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituena. Oinarrian, aurreko legealdian ezarritako Administrazioaren sail-egitura eta sailen arteko eskumen-banaketa berberak mantendu ziren.

Dekretu horren bidez Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Sail berria eratu zen desagertutako Nekazaritza eta Arrantza Sailak zituen sailburuordetza, zuzendaritza eta administrazio-unitateekin. Bertako sailburuak, Jaurlaritzari buruzko Legeko 26.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, Lehendakariari proposatu behar dio bere sailaren egitura- eta antolaketa-proiektua, Gobernu Programan jasotako helburuei eta programa hori argitzen duten irizpideei egokituta eta lehen aipatutako ekainaren 27ko 8/2005 Dekretuan adierazitako antolamendu-irizpideen arabera.

Aurrekoa kontuan hartuta, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Sail berria eratu da. Sail berriaren egitura aipatutako koalizio-hitzarmeneko edukiak arrakastaz aurrera eramateko modukoa da, batez ere «Aurrerabiderako Gobernua: hazkundea eta ongizatea sustatzeko Gobernua: lehen sektorea eta landa-munduaren garapena" epigrafeari dagokionez. Epigrafe horrek adierazten du gure herrian sektore ekonomiko tradizionala izateaz gainera, beste hainbat funtzio ere betetzen dituela nekazaritza eta abeltzaintza munduak: kalitatezko produktuen hornitzaile eta baserri-munduan populazioa mantentzeko bermatzaile izateaz gainera, natur ingurunearen eta biodibertsitatearen babesle ere badela. Era berean, bi helburu ezartzen ditu: batetik, baserri-giro eta arrantzale-tokien errespetuzko garapen integral eta iraunkorra lortzea, bertako herritarrei hiri-munduak

# Disposiciones Generales

## DEPARTAMENTO DE AGRICULTURA, PESCA Y ALIMENTACIÓN

### 5257

DECRETO 290/2005, de 11 de octubre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Agricultura, Pesca y Alimentación.

Tras el debate de investidura del día 22 de junio de 2005 en el Parlamento Vasco en el que el Lehendakari expuso el nuevo Programa de Gobierno, fue firmado con fecha 27 de junio de 2005 el Acuerdo de coalición para la formación del Gobierno Vasco de la VIII Legislatura. Este nuevo Gobierno configura el diseño de su estructura administrativa a través del Decreto 8/2005, de 27 de junio, del Lehendakari, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos, manteniendo básicamente la misma estructura departamental de la Administración y la asignación competencial entre los Departamentos establecida en la anterior Legislatura.

En el meritado Decreto se creó el nuevo Departamento de Agricultura, Pesca y Alimentación, que, en principio, quedó integrado por las Viceconsejerías, Direcciones y unidades administrativas del extinto Departamento de Agricultura y Pesca, y cuyo Consejero, conforme a lo dispuesto en el artículo 26.2 de la Ley de Gobierno procederá a proponer al Lehendakari el proyecto de estructura y organización de su Departamento, conforme a los principios inspiradores y a los objetivos previstos en el programa del Gobierno y de acuerdo a los criterios organizativos señalados en el antedicho Decreto 8/2005, de 27 de junio.

En función de lo anterior, el nuevo Departamento de Agricultura, Pesca y Alimentación se configura con una estructura capaz de llevar adelante con éxito los contenidos del precitado Acuerdo de coalición integrados especialmente en el epígrafe «Un Gobierno de Progreso: un Gobierno para impulsar el crecimiento y el bienestar: el sector primario y el desarrollo rural", en donde ya se señala que la actividad agraria y ganadera, además de suponer un sector económico tradicional de nuestro país, tiene un carácter multifuncional como proveedor de productos alimentarios de calidad, garante del mantenimiento de la población en el entorno rural, así como protector del medio natural y de la biodiversidad. Asimismo, se establecen los objetivos de lograr el desarrollo integral, sostenible y respetuoso de las zonas rurales y pesqueras, dotando a sus ciudadanos

gozatzen dituenen antzeko zerbitzuak eskura ezarriz, eta, bestetik, elikadura- eta nekazaritza-alorreko politika produkzio- eta transformazio-egituren modernizazioan eta belaunaldi berrietako gazteak sektore horretan sartzean oinarritzea.

Adierazitako hori gauzatzeko, koalizio-hitzarmenean jasotako ekintza hauek egingo dira: – Nekazaritza eta Elikadura Politikaren Legea onetsi, nekazaritzarako lurraren defentsa, nekazal praktika onak eta kalitatea, eta nekazaritzaren iraupena segurtatuko duten gazteak sektore honetan sartuko direla bermatzeko; – baserri-munduan emakumearen protagonismoa bultzatzeko ez ezik, ustiategien jabekidetasuna eta emakumeak sektorean beteriko eginkizuna ere aintzat hartuko dituen egintza positiboko plana onartu; – nekazarien errentak bermatuko dituzten Nekazal Aseguruen Plana onetsi, egungo kalte-ordainen bidezko sistema hau pixkanaka ordezka dezan; – arrantza-produktuen markak eta kalitateko labelak sustatu; – 2007-2012 Nekazaritza Garatzeko Plan Iraunkor berria onetsi (NGPI), nekazari gazteak bultzatzeko, nekazaritza-lurra defendatzeko eta kalitatezko produktuak sustatzeko; – arrantza sektorearentzat Plan Estrategikoa onetsi, ekonomiaren globalizazioaren eta baliabide biologikoen kudeaketaren iraunkortasunaren testuinguruan; – arrantza-ontzi eta portuen modernizazioa sustatu; – jarduera ekonomikoen garapenean arrantzale-udalerriei lagundu; eta – elikakatearen kalitatea bermatzeko eta gaixotasunak prebenitzeko berariazko programak lehenetsi.

Hori guztia dela-eta, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Sailari esleitutako eskumen eta egitekoak argi eta zehatz azaldu behar zaizkio euskal gizarteari, bera baita Administrazio honek eskainitako zerbitzu eta jardueren jasotzailea eta azken onuraduna. Gogoan har dezagun eskumen eta egiteko horien bitartez beteko duela sail honek objektibotasun eta eraginkortasunez bere eginkizun nagusia: euskal herritarrei zerbitzu egitea.

Alde horretatik, sailari esleitutako eginkizuna politikoki eta administratiboki eraginkortasunez burutzeko moduko egitura- eta egiteko-antolakuntza eratu da, alegia, Euskal Autonomia Erkidegoko herritarrek nekazaritzaren (nekazaritza bera, abeltzaintza eta basozaintza), arrantzaren, eta elikaduraren arloan dituzten beharrizan eta igurikapenei erantzuteko modukoa. Azken horri dagokionez, elikaduraren arloa gero eta garrantzi handiagoa hartuz joan da sailaren egitekoen artean, eta orain sailaren oinordeko berria da. Ahalegin handia egin da gero eta kalitate-kontrol handiagoa ezartzeko nekazaritza eta arrantzako elikagaien produkzioan. Horretarako, kalitate-estandar altuak definitu eta exijitu zaizkie nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzako produktuen produkzioari, eraldakuntzari eta merkatu-

de servicios análogos a los del mundo urbano, y el de fundamentar nuestra política agroalimentaria en los pilares de la modernización de las estructuras productivas y transformadoras y la incorporación al sector de las jóvenes generaciones.

Lo anteriormente descrito, se llevará a cabo a través de las acciones que en el Acuerdo de coalición se contemplan, cuales son, en resumen, las siguientes: - Aprobación de la Ley de Política Agraria y Alimentaria que garantice la defensa del suelo agrario, las buenas prácticas agrarias y la calidad, así como la incorporación de nuevos jóvenes agricultores que aseguren la continuidad de la actividad agraria; - Aprobación de un plan de acción positiva para impulsar el protagonismo de la mujer en el ámbito rural que contemple la cotitularidad de explotaciones y reconozca su papel en el sector, - Aprobación de un Plan de Seguros Agrarios que garantice las rentas de los agricultores y sustituya paulatinamente el actual sistema de indemnizaciones por daños, - Promocionar marcas y labeles de calidad también en productos pesqueros, - Aprobar un nuevo Plan de Desarrollo Rural Sostenible (PDRS) 2007-2012 para apoyo a jóvenes agricultores, defensa del suelo agrario y promoción de productos de calidad, - Promover un Plan Estratégico para nuestro sector pesquero en el contexto de globalización de la economía y de sostenibilidad en la gestión de los recursos biológicos, - Promover la modernización de los buques y de los puertos pesqueros, - Apoyar a los municipios pesqueros en el desarrollo de actividades económicas, y – Dar prioridad a programas específicos para garantizar la calidad de la cadena alimentaria y prevenir enfermedades.

Por todo ello, resulta necesario definir con claridad a la sociedad vasca, receptora y beneficiaria final de los servicios y actividades ofertados por esta Administración, las competencias y funciones concretas atribuidas al Departamento de Agricultura, Pesca y Alimentación, a través de las cuáles deberá cumplir con objetividad y eficacia su misión fundamental, el servicio a los ciudadanos vascos.

En este sentido se ha elaborado una organización estructural y funcional del Departamento que permita abordar con eficacia política y administrativa la tarea encomendada al mismo, cual es, en resumidas cuentas, la de dar respuesta a las necesidades y expectativas de los ciudadanos de la Comunidad Autónoma del País Vasco tanto en el área agraria, que incluye lo agrícola, lo ganadero y lo forestal, como en el área pesquera y en el área alimentaria. En cuanto a esta última, la materia alimentaria ha venido cobrando cada vez mayor importancia entre las funciones desarrolladas por el Departamento del cual este nuevo es heredero. Grandes han sido los esfuerzos para ir implantando y exigiendo un nivel de control y calidad cada vez mayor en la producción agropesquera de carácter alimentario, mediante la

ratzeari, eta sektoreko industrien inbertsioei laguntza ekonomiko irmo eta oso garrantzitsua eman zaie.

Horrela, bada, batik bat azken boladako elikadura-krisien eraginez elikadura-gaietan zalantzarik gabeko erreferentzia-puntu bat izatearen inguruan herritarrek gero eta kezka eta eskakizun handiagoak adierazten dizkietenez administrazioei, sail berria eratu da, kezka eta eskakizun horiei erantzuteko. Saila elikadura-gai orokorretako erreferente garbia izango da herritarrentzat, eta espresuki beste sail eta organoei ez dagozkien elikadurarekin lotutako beste alderdiak ere beregain egongo dira eta modu erakargarrian jardungo du horiekin. Elikadura-gaiei emango zaien bultzada irmoak baldintzatuko du neurri handi batean sailak izango duen egituraren eta funtzioen antolamendua.

Bestetik, ezagun da Euskal Herriko landa-ingurunearen eta itsasertzekoaren garapenak ondorio garrantzitsu eta funtzioanitzak dakarzkiola euskal gizarte osoari. Eta garapen hori Euskal Herriaren diseinu sozio-ekonomikoaren eta hiri-ingurunearekiko harremanetako orekaren mendean ez ezik, inguru moderno, erakargarri eta emankorra egiteko eta, hala, bizilagun, jarduera eta inbertsio berriak erakartzeko behar diren egitura eta baldintzak eratu eta sortzeko ahalmenaren mendean egongo da. Zeregin zail eta neketsu hori Euskal Herriarentzako erronka da, eta aurre egingo bazaio, helburu eta xedetzat nekazaritza, abeltzaintza, arrantza eta elikadura dituen saila behar da.

Adierazitakoaren arabera, eta Jaurlaritzaren antolamendu-irizpide orokorrei jarraiki, dekretu honen bidez gaiak berrantolatu dira, eta desagertu diren Nekazaritza eta Landa Garapeneko Sailburuordetza eta Arrantza Sailburuordetzaren ordez beste bi sailburuordetza sortu dira. Gainera, horietako baten barruan sartu dira I+G+Bren inguruko zereginak, lehen zuzenean sailburuaren menpe zegoen, eta orain desagertu den, zuzendaritza bati atxikita zeudenak.

Hortaz, alde batetik Nekazaritzaren eta Arrantzaren Garapeneko Sailburuordetza eratu da. Funtsean nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren lehen sektorea bultzatu eta antolatzearekin zerikusia duten gai eta zereginez arduratuko da, eta baita landa-ingurunearen eta itsasertzekoaren garapenaz eta dagokion eraketa sektorialaz ere.

Beste aldetik, berriz, elikagaien kalitateari eta bermeari eman nahi zaien bultzada politikoaren eraginez, Elikagai Politika eta Industriako Sailburuordetza eratu da. Honako hauekin zerikusia daukaten gai eta zereginez arduratuko da batik bat: elikagaien kalitatea eta segurtasuna; nekazaritza, arrantza eta elikagaien industriak; lehen sektoretik datozen produktuen eraldakuntza eta merkaturatzea; basoen, ehizaren eta arrantza

definición y la exigencia de altos estándares de calidad en la producción, transformación y comercialización de los productos de la agricultura, de la ganadería y de la pesca, así como mediante un decidido e importantísimo apoyo económico a las inversiones en las industrias del sector.

Pues bien, ante una creciente preocupación y demanda social de la ciudadanía frente a las Administraciones en cuanto a tener un punto de referencia indubitable en los temas de la alimentación, en buena parte producto de las recientes crisis alimentarias, la creación de este nuevo Departamento pretende ser la respuesta a ello sirviendo de referente claro ante el ciudadano en la generalidad de la materia y actuando con carácter residual y atrayente en los aspectos relacionados con la alimentación que no se atribuyan expresamente a otros Departamentos y órganos. Este decidido impulso de las cuestiones alimentarias va a condicionar en gran medida la organización estructural y funcional del Departamento.

Por otra parte el desarrollo del medio rural y litoral del País Vasco, que conlleva aportaciones importantes para el resto de la sociedad vasca, de carácter multifuncional, no sólo dependerá del diseño socioeconómico del País y del equilibrio de las relaciones con el mundo urbano, sino también de la constitución y creación de las estructuras y condiciones necesarias para establecer un entorno moderno, atractivo y rentable para atraer nuevos residentes, y nuevas actividades e inversiones. Esta labor, que constituye un reto para el País Vasco, debe continuar acometiéndose desde un Departamento cuyo objetivo y fin siga siendo la agricultura, la ganadería, la pesca y la alimentación.

En función de lo dicho, y siguiendo los criterios organizativos generales del Gobierno, este Decreto redistribuye las materias, antes adscritas a las extintas Viceconsejerías de Agricultura y Desarrollo Rural y de Pesca, entre dos nuevas Viceconsejerías, integrándose además en una de ellas las funciones relacionadas con la I+D+I antes adscritas a un extinta Dirección dependiente directamente del Consejero.

Así pues, por un lado, se crea la Viceconsejería de Desarrollo Agrario y Pesquero, que se hará cargo, básicamente, de todas aquellas materias y funciones relacionadas con el impulso y ordenación del sector primario agrícola, ganadero y pesquero, así como del desarrollo rural y del litoral y de la correspondiente formación sectorial.

Por otra parte, como fruto del mencionado impulso político que se quiere dar a la calidad y garantía alimentaria, se crea la Viceconsejería de Política e Industria Alimentaria, que se hará cargo, básicamente, de las materias y funciones referentes a la calidad y seguridad de los alimentos, a las industrias agrarias, pesqueras y alimentarias, a la transformación y comercialización de los productos procedentes del sector primario, así co-

kontinentalaren antolamendua; eta, sektoreko ikerketa eta garapen teknologikoa.

Esandakoaren arabera, izaera horizontaleko zuzendaritzak proposatu dira, zuzenean sailburuaren menpe daudenak: Zerbitzu Orokorren Zuzendaritza, sailaren lege, aurrekontu eta langileen arloen ardura duena; eta, Sailburuaren Kabineteko Zuzendaritza, sailburuari lagunduko diona sailaren gaiak politikoki bultzatzen. Bi organo horiek, hierarkiari eta eskumenei dagokienez, aurreko egituran zeuden bezala jarraituko dute.

Beraz, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura sailburuaren proposamenez, aldez aurretik Lehendakariak onetsi eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2005eko urriaren 11n egindako bilkuran aztertu eta onetsi ondoren, honako hau

XEDATU DUT:

I. KAPITULUA
ANTOLAMENDU OROKORRA

*1. artikulua.–* Egitekoak eta jardun-arloak.

Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen Lehendakariaren ekainaren 27ko 8/2005 Dekretuaren 17. artikuluaren edukiak garatzeko, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Sailaren jardun-arloak honako hauek izango dira:

a) Nekazaritzaren eta abeltzaintzaren lehiakortasuna sustatzea.

b) Nekazaritza, basozaintza eta abeltzaintzaren antolamendua.

c) Landa-garapena eta landa-inguruneko jardun ekonomikoaren dibertsifikazioa.

d) Animalien eta landareen ekoizpena eta osasuna.

e) Euskal nekazaritzaren eta landa-ingurune osoaren garapen iraunkor eta funtzioanitza bermatu eta sustatzea.

f) Ehizako eta arrantza kontinentaleko ondasunak aprobetxatzeko araubidea.

g) Nekazaritzako, abeltzaintzako, basozaintzako, elikagaigintzako eta arrantzako elkarte, erakunde eta korporazio profesionalak.

h) Nekazaritzako eta landa-inguruneko prestakuntza.

i) Nekazaritzako, elikagaigintzako, arrantzako eta ozeanografiako ikerketa.

j) Nekazaritzako, arrantzako eta elikagaigintzako industriak eta merkaturatzea.

mo a la ordenación forestal, cinegética y piscícola continental, y a la investigación y desarrollo tecnológico sectorial.

En función de lo dicho, se proponen sendas Direcciones de carácter horizontal y dependientes directamente del Consejero, como son la Dirección de Servicios Generales, responsable de las áreas jurídica, presupuestaria y de personal del Departamento; y la Dirección del Gabinete del Consejero, como órgano de apoyo al Consejero en el impulso político de las materias propias del Departamento. Estos órganos continúan, desde el punto de vista jerárquico y competencial, prácticamente en la misma situación que ya tenían en la anterior estructura.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Agricultura, Pesca y Alimentación, previa aprobación del Lehendakari, y deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 11 de octubre de 2005,

DISPONGO:

CAPÍTULO I
DE LA ORGANIZACIÓN GENERAL

***Artículo 1.–*** Funciones y áreas de actuación.

El Departamento de Agricultura, Pesca y Alimentación, en desarrollo del artículo 17 del Decreto 8/2005, de 27 de junio, del Lehendakari, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos, ejercerá sus funciones sobre las siguientes materias:

a) Promoción de la capacidad competitiva de la agricultura y la ganadería.

b) Ordenación agrícola, forestal y ganadera.

c) Desarrollo rural y diversificación de la actividad económica en el medio rural.

d) Producción y sanidad animal y vegetal.

e) Garantía y fomento del desarrollo sostenible y multifuncional del agro vasco y del conjunto del medio rural.

f) Régimen de aprovechamiento de la riqueza cinegética y piscícola continental.

g) Asociaciones, organizaciones y corporaciones profesionales de los sectores agrícola, ganadero, forestal, alimentario y pesquero.

h) Formación agraria y del medio rural.

i) Investigación agraria, alimentaria, pesquera y oceanográfica.

j) Industrias y comercialización agrarias, pesqueras y alimentarias.

k) Basozaintzako lehen transformazioko industriak.

l) Nekazaritza eta arrantzako produktuen eta elikagaien kalitatea eta bermea.

m) Jatorrizko deiturak, eta nekazaritzako eta arrantzako produktuen eta elikagaien kalitate eta bermearen bereizgarriak.

n) Trazabilitatea eta elikagaien segurtasuna.

ñ) Mahastizaintza eta enologia.

o) EBko Nekazaritza Politika Bateratuak eragindako gastuen Erakunde Ordaintzailea.

p) Arrantzaren antolamendua, itsas arrantza, itsaski-bilketa eta akuikultura.

q) Arrantzako produktuak eraldatu eta merkaturatzeko egituren plangintza eta sustapena.

r) Nabigazioko eta arrantzako prestakuntza eta kirol-nabigazioko irakaskuntza.

s) Urpekaritza profesionala.

t) Arrantza-eskualdeen toki-garapena.

u) Animalien babesa eta kontrola. Zoologia-guneak.

v) Harakintzaren eta esnegintzaren antolamendua eta egituraketa.

*2. artikulua.–* Egitura orokorra.

Aurreko artikuluan aipaturiko jardun-arloetako eskumenak erabiltzeko, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Sailak honako egitura orokor hau hartu du:

A) Kide bakarreko organoak.

1.– Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura sailburua.

1.1.– Sailburuaren Kabineteko Zuzendaritza.

1.2.– Zerbitzu Orokorren Zuzendaritza.

2.– Nekazaritzaren eta Arrantzaren Garapeneko Sailburuordetza.

2.1.– Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritza.

2.2.– Arrantza eta Akuikultura Zuzendaritza.

2.3.– Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko Zuzendaritza.

3.– Elikagai Politika eta Industriako Sailburuordetza.

3.1.– Elikagaien Industriako Zuzendaritza.

3.2.– Elikagaien Kalitateko Zuzendaritza.

3.3.– Teknologiaren Berrikuntza eta Garapeneko Zuzendaritza.

B) Kide anitzeko organoak.

Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Sailari kide anitzeko organo hauek atxiki zaizkio saila eratzeko arauetan zehaztutakoaren arabera:

k) Industrias de primera transformación forestal.

l) Calidad y garantía de los productos agropesqueros y alimentarios.

m) Denominaciones de origen y distintivos de calidad y garantía de productos agropesqueros y alimentarios.

n) Trazabilidad y seguridad de los alimentos.

ñ) Viticultura y enología.

o) Organismo Pagador de los gastos de la política agraria común de la UE.

p) Ordenación pesquera, pesca marítima, marisqueo y acuicultura.

q) Planificación y fomento de las estructuras de transformación y comercialización de productos pesqueros.

r) Formación náutico-pesquera y enseñanzas náutico-recreativas.

s) Buceo profesional.

t) Desarrollo local de las zonas pesqueras.

u) Protección y control de los animales. Núcleos zoológicos.

v) Ordenación y estructuración de los sectores cárnico y lácteo.

*Artículo 2.–* Estructura general.

Para el ejercicio de las competencias relativas a las materias señaladas en el artículo anterior, el Departamento de Agricultura, Pesca y Alimentación adopta la siguiente estructura general:

A) Órganos unipersonales.

1.– Consejero de Agricultura, Pesca y Alimentación.

1.1.– Dirección del Gabinete del Consejero.

1.2.– Dirección de Servicios Generales.

2.– Viceconsejería de Desarrollo Agrario y Pesquero.

2.1.– Dirección de Agricultura y Ganadería.

2.2.– Dirección de Pesca y Acuicultura.

2.3.– Dirección de Desarrollo Rural y Litoral.

3.– Viceconsejería de Política e Industria Alimentaria.

3.1.– Dirección de Industrias Alimentarias.

3.2.– Dirección de Calidad Alimentaria.

3.3.– Dirección de Innovación y Desarrollo Tecnológico.

B) Órganos colegiados.

Están adscritos al Departamento de Agricultura, Pesca y Alimentación, en los términos previstos en sus normas de creación, los siguientes órganos colegiados:

1.– Nekazaritza eta Elikadura Politikako Batzordea.

2.– Arrantza Politikako Batzordea.

3.– Nekazaritzako Aholku Mahai Nazionala (1997ko maiatzaren 7ko Agindua).

4.– Arrantzako Aholku Mahai Nazionala (1996ko uztailaren 23ko Agindua).

5.– Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Sailaren Kontratazio Mahaia (1999ko ekainaren 11ko Agindua).

6.– Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Landa Errentamenduen Tartekaritza Batzak (apirilaren 25eko 94/1983 Dekretua).

7.– Izurri Hilkariei buruzko Arauteriaren Garapen eta Aplikazioko Batzorde Teknikoa (1990eko otsailaren 15eko Agindua).

8.– Euskal Herriko Bertako Abere Arrazen Kontseilua (abenduaren 26ko 373/2001 Dekretua).

9.– Nekazaritza Ekologikoaren Euskal Kontseilua (irailaren 24ko 229/1996 Dekretua).

10.– Euskadiko Ekoizpen Integraturako Koordinazio Batzordea (otsailaren 13ko 31/2001 Dekretua eta 2002ko otsailaren 5eko Agindua).

11.– Landaberri (apirilaren 8ko 10/1998 Legea eta ekainaren 2ko 95/1998 Dekretua).

12.– Landa Garapeneko Kontseilu Aholkularia (apirilaren 8ko 10/1998 Legea eta ekainaren 2ko 95/1998 Dekretua).

13.– Euskadiko Animalien Elikadurarako Batzordea (apirilaren 12ko 90/2005 Dekretua).

C) Administrazio instituzionala.

Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Sailari atxikita daude, halaber, honako baltzu publiko hauek:

1.– Mendikoi Nekazaritza Garapenerako Institutua, A.B., Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko Zuzendaritzaren bitartez.

2.– Neiker Nekazal Ikerketa eta Garapenerako Euskal Erakundea, A.B., Teknologiaren Berrikuntza eta Garapeneko Zuzendaritzaren bitartez.

## II. KAPITULUA NEKAZARITZA, ARRANTZA ETA ELIKADURA SAILBURUA

***3. artikulua.***– Sailburua.

1.– Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura sailburuari honakook dagozkio: batetik, Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 26. eta 28. artikuluetan finkatutako eskumenak betetzea, eta, bestetik, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen Lehendakariaren ekainaren 27ko 8/2005 Dekretuaren indarrez Sailari dagozkion egiteko eta jardun-arloetan, indarrean

1.– Comisión de Política Agraria y Alimentaria.

2.– Comisión de Política Pesquera.

3.– Mesa Consultiva Nacional Agraria (Orden de 7 de mayo de 1997).

4.– Mesa Consultiva Nacional de Pesca (Orden de 23 de julio de 1996).

5.– Mesa de Contratación del Departamento de Agricultura, Pesca y Alimentación (Orden de 11 de junio de 1999).

6.– Juntas Arbitrales de Arrendamientos Rústicos de Álava, Bizkaia y Gipuzkoa (Decreto 94/1983, de 25 de abril).

7.– Comisión Técnica para el Desarrollo y Aplicación de la Reglamentación sobre Plaguicidas (Orden de 15 de febrero de 1990).

8.– Consejo de Razas Animales Autóctonas Vascas (Decreto 373/2001, de 26 de diciembre).

9.– Consejo Vasco de la Producción Agraria Ecológica (Decreto 229/1996, de 24 de septiembre).

10.– Comisión Coordinadora para la Producción Integrada de Euskadi (Decreto 31/2001, de 13 de febrero y Orden de 5 de febrero de 2002).

11.– Landaberri (Ley 10/1998, de 8 de abril, y Decreto 95/1998, de 2 de junio).

12.– Consejo Consultivo de Desarrollo Rural (Ley 10/1998, de 8 de abril, y Decreto 95/1998, de 2 de junio).

13.– Comisión de Alimentación Animal de Euskadi (Decreto 90/2005, de 12 de abril).

C) Administración institucional.

Están adscritas al Departamento de Agricultura, Pesca y Alimentación, las siguientes Sociedades Públicas:

1.– Mendikoi, Nekazaritza Garapenerako Institutua, A.B., a través de la Dirección de Desarrollo Rural y Litoral.

2.– Neiker, Nekazal Ikerketa eta Garapenerako Euskal Erakundea, A.B., a través de la Dirección de Innovación y Desarrollo Tecnológico.

## CAPÍTULO II DEL CONSEJERO DE AGRICULTURA, PESCA Y ALIMENTACIÓN

***Artículo 3.***– Consejero.

1.– Corresponde al Consejero de Agricultura, Pesca y Alimentación el ejercicio de las competencias establecidas en los artículos 26 y 28 de la Ley 7/1981, de 30 de junio, de Gobierno, y cuantas le atribuya la legislación vigente en el ámbito de las funciones y áreas de actuación que corresponden al Departamento en virtud del Decreto 8/2005, de 27 de junio, del Lehendakari, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autó-

dauden legeek egozten dizkioten eskumenak betetzea, beti ere dekretu honetan ohartemandakoarekin bat etorriz.

2.– Saileko organo gorena denez, saileko organo eta jarduera guztien zuzendaritza, koordinazioa eta kontrola egingo ditu.

3.– Sailburuari dagozkio, halaber, honako egiteko hauek:

a) Aukerako izendapeneko lanpostuak betetzea, eta aldi baterako langileak izendatzea.

b) Saileko organoen artean eskuduntzei buruz sortzen diren gatazkak ebaztea eta beste sail eta erakunde batzuekiko eskumen-arazoak azaltzea.

c) Hitzarmenak eta akordioak onartzea eta sinatzea, sailari dagozkion gaietan, baldin eta Jaurlaritzaren Kontseiluak aurretik onartu behar ez baditu.

d) Berariaz esleitzen zaizkion egitekoak, edo/eta, Jaurlaritzako sailburuei orokorrean esleitutakoak izanik, komunak diren gainontzeko egitekoak.

*4. artikulua.*– Sailburuaren Kabineteko Zuzendaritza.

Sailburuaren mendeko zuzen eta hierarkikoa izanik, Sailburuaren Kabineteko Zuzendaritzak eginkizun hauek beteko ditu:

a) Behar duen laguntza eta aholkuak ematea sailburuari, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Sailari esleitutako eskumenak betetzeko, bai eta eskumen horien inguruko irizpide eta jarduera-planak ezartzeko ere.

b) Nekazaritza, elikadura, arrantza eta landa-ingurunea antolatu eta sustatzeko kontuetan, Sailak Europako erakunde publiko zein pribatuekin dituen solaskidetza eta, oro har, harremanak bideratzea, Jaurlaritzaren Lehendakaritzako organo eskudunaren bitartez.

c) Hierarkian sailburuordetzen mende ez dauden zuzendaritzek sailburuarekin eta Nekazaritzaren eta Arrantzaren Garapeneko Sailburuordetzarekin nahiz Elikagai Politika eta Industriako Sailburuordetzarekin dituzten harremanak koordinatzea.

d) Sailari dagozkion eskumenen barruan izanik, Europar Batasunaren helburuetan eragina duten programazio-agiri bakarrak eta bestelako planak diseinatzea.

e) Sailaren organoen arteko harremanak koordinatzea, bai eta organo eskudunen bitartez sailak Euskal Autonomia Erkidegoko, Estatuko edo Europako Erkidegoko beste administrazio eta organoekin dituen harremanak ere, beste organo batzuei berariaz esleitutakoak izan ezik.

noma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos, y no estén atribuidas a ningún otro órgano del Departamento; de conformidad con lo previsto en el presente Decreto.

2.– Como órgano superior del Departamento ejercerá la dirección, coordinación y control de todos los órganos y actividades del mismo.

3.– Corresponden asimismo al Consejero las siguientes atribuciones:

a) La provisión de los puestos de libre designación, así como la designación del personal eventual.

b) La resolución de los conflictos de atribuciones entre órganos del propio Departamento y el planteamiento de cuestiones de competencia con otros Departamentos y organismos.

c) La autorización de los convenios y acuerdos, en materias propias del Departamento, que se encuentren excluidos de la previa autorización por el Consejo de Gobierno, así como la suscripción de los mismos.

d) Las funciones que le sean expresamente conferidas y aquellas otras que tengan carácter de comunes por venir atribuidas de forma general a los Consejeros del Gobierno.

*Artículo 4.*– Dirección del Gabinete del Consejero.

Corresponde a la Dirección del Gabinete del Consejero, bajo la dependencia directa y jerárquica del Consejero, el ejercicio de las siguientes atribuciones:

a) Prestar al Consejero la asistencia y asesoramiento necesario para el ejercicio de las competencias atribuidas al Departamento de Agricultura, Pesca y Alimentación, así como para el establecimiento de los criterios y planes de actuación relativas a dichas competencias.

b) Canalizar la interlocución y, en general, las relaciones del Departamento con las organizaciones europeas, tanto públicas como privadas, en materia de ordenación y fomento de los sectores agrario, alimentario, pesquero y del medio rural, a través del órgano competente de la Presidencia del Gobierno.

c) Coordinar las relaciones de las Direcciones no dependientes jerárquicamente de Viceconsejerías con el Consejero y con las Viceconsejerías de Desarrollo Agrario y Pesquero y de Política e Industria Alimentaria.

d) Diseñar los Documentos Únicos de Programación y cualesquiera otros Planes que, dentro de las competencias propias del Departamento, afecten a los distintos objetivos de la Unión Europea.

e) Coordinar, las relaciones entre los distintos órganos del Departamento así como, y ello a través de los órganos competentes, las que desde el Departamento se mantengan con las distintas Administraciones e Instituciones, tanto de la Comunidad Autónoma de Euskadi, como estatales o comunitarias, con la salvedad de las específicamente asignadas o otros órganos.

f) Europar Batasunaren arau eta politikak egin eta aplikatzeko lanetan Eusko Jaurlaritzak duen partaidetza garatzeko koordinazio-neurriak betetzea, indarrean dauden hitzarmen eta arauekin bat etorriz.

g) Sailak gizarte-komunikabideekin dituen harremanak koordinatzea.

h) Sailak Eusko Legebiltzarrarekin dituen harremanak bideratzea, Jaurlaritzaren Lehendakariordetzako organo eskudunaren bitartez.

i) Sailaren plan estrategikoen gertaketa eta plan horien jarraipen-txostenen gertaketa koordinatzea, saileko sailburuordetzekin lankidetzan.

j) Informazio-sistemen, estatistikaren, eta azterketa eta analisien alorreko kudeaketa eta koordinazioa egitea, Ogasun eta Herri Administrazio Sailari dagozkion eskumenak ezertan urratu gabe. Uztailaren 30eko 202/1996 Dekretuaren bidez arautUtako Sailaren Organo Estatistiko Espezifikoa ere zuzendaritza honi atxikita dago. Atxikipen horrek ez dio kalterik egingo Jaurlaritzaren Sailetako Estatistika Organo Espezifikoak arautzen dituen ekainaren 22ko 180/1993 Dekretuari.

k) Sailak Arartekoarekin dituen harremanak koordinatzea eta bideratzea, organo eskudunen bitartez.

l) Europar Batasuneko Nekazaritza Politika Bateratuak eragindako gastuen Erakunde Ordaintzailearen barne-auditoria egitea, Europar Batasunaren arauen eremuaren barruan.

m) Sailaren menpeko enpresa-talde eta fundazioen arteko harremanak koordinatzea eta lankidetza sustatzea.

n) Sailak Informazioaren eta Jakintzaren Gizartearen sustapen eta garapenerako egin beharreko jarduerak diseinatu eta kudeatzea.

ñ) Sailaren egitekoekin zerikusia duten ekintza instituzionalak sustatu eta kudeatzea.

o) Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean eta Eusko Jaurlaritzak onetsitako berdintasun-planean aurreikusitako neurriak gauzatu daitezen, saileko zuzendaritza eta arloak nahiz sailari atxikitako organismo, erakunde, elkarte eta organoak bultzatu eta koordinatzea, eta guztiekin lankidetzan aritzea.

p) Aurreko idatz-zatietan aipatutako egitekoekin loturik, zuzendaritza honi eslei dakizkion beste egiteko guztiak.

*5. artikulua.–* Zerbitzu Orokorren Zuzendaritza.

Sailburuaren mendeko zuzen eta hierarkikoa izanik, Zerbitzu Orokorren Zuzendaritzak bete beharreko egitekoak hauek dira:

f) Ejecutar las medidas de coordinación para desarrollar la intervención del Gobierno Vasco en la elaboración y aplicación de la normativa y de las políticas de la Unión Europea, de conformidad con los acuerdos y normas en vigor.

g) Coordinar las relaciones del Departamento con los medios de comunicación social.

h) Canalizar las relaciones del Departamento con el Parlamento Vasco a través del órgano competente de la Vicepresidencia del Gobierno.

i) Coordinar la elaboración de los Planes Estratégicos del Departamento y de los informes de seguimiento correspondientes a los mismos, en coordinación con las Viceconsejerías del Departamento.

j) Llevar a cabo la gestión y coordinación en materia de sistemas de información, estadística, estudios y análisis, sin perjuicio de las competencias que correspondan al Departamento de Hacienda y Administración Pública, adscribiéndosele el Órgano Estadístico Específico del Departamento regulado por el Decreto 202/1996, de 30 de julio. Dicha adscripción lo será sin perjuicio de lo dispuesto en el Decreto 180/1993, de 22 de junio, por el que se regulan los Órganos Estadísticos Específicos de los Departamentos del Gobierno.

k) Coordinar y canalizar, a través de los órganos competentes, las relaciones del Departamento con el Ararteko.

l) Realizar la auditoría interna del Organismo Pagador de los gastos de la Política Agrícola Común de la Unión Europea, en el ámbito exclusivo de la normativa comunitaria.

m) Coordinar las relaciones y potenciar la colaboración entre el grupo de empresas y fundaciones dependientes del Departamento.

n) Diseñar y gestionar las actuaciones departamentales en el ámbito de la promoción y desarrollo de la Sociedad de la Información y del Conocimiento.

ñ) Promover y gestionar acciones de carácter institucional en relación con las funciones del Departamento.

o) El impulso, coordinación y colaboración con las distintas Direcciones y áreas del Departamento y con los organismos, entes, sociedades y órganos adscritos al mismo para la ejecución de las medidas previstas en la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres, y en el plan de igualdad aprobado por el Gobierno Vasco.

p) Cualesquiera otras funciones que le fueran encomendadas en relación con las señaladas en los apartados anteriores.

*Artículo 5.–* Dirección de Servicios Generales.

Corresponde a la Dirección de Servicios Generales, bajo la dependencia directa y jerárquica del Consejero, el ejercicio de las siguientes atribuciones:

a) Sailburuari laguntza tekniko-juridikoa eta administratiboa ematea.

b) Sailak Herri Kontuen Euskal Epaitegiarekin dituen harremanak koordinatu eta bideratzea.

c) Saileko zerbitzu juridikoak egituratzea. Zerbitzu juridikoek saileko organoei aholkularitza juridikoa emango diete eta eskatzen zaizkion zuzenbideko txostenak egingo ditu, Jaurlaritzaren Lehendakariordetzak arlo horretan dituen eskumenak ezertan urratu gabe.

d) Sailak emandako arauak koordinatzea, hala badagokio prestatzea, eta, kontrolatzea.

e) Sailaren interesik prozedura judizialen batean sartuta egonez gero, delako interes horiei egin beharreko jarraipena egitea eta interes horien defentsan laguntzea, Jaurlaritzaren Lehendakariordetzako organo eskudunaren bitartez.

f) Jaurlaritzaren Kontseiluari edo horren organo eskudunei aurkeztu beharreko espediente eta gaiak izapidetu eta kontrolatzea, eta baita Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian edo beste edozein aldizkari ofizialetan argitaratu behar diren xedapen eta administrazio-egintzak ere.

g) Sailaren kontratazio-organoa izatea.

h) Sailaren aurrekontuaren aurreproiektua egitea, haren jarraipena koordinatzea eta, oro har, sailaren ekonomia eta aurrekontua kudeatzea.

i) Sailaren eskumen-arloetan, ikerketa eta txosten ekonomikoak programatzea, koordinatzea eta, hala badagokio, prestatzea.

j) Europar Batasunaren Nekazaritza Politika Bateratuak eragindako gastuen Erakunde Ordaintzailearen kontabilitateaz arduratzea, arau komunitarioen eremuaren barruan.

k) Unean-unean indarrean dauden subentzio-egitarauekin bat etorriz, laguntza edo subentzioren baten banaketa sailaren ardura izanez gero, delako laguntza edo subentzio horren erabilera egokia bermatzeko behar diren ekintza guztien kudeaketa proposatu eta burutzea, saileko zuzendaritzekin lankidetzan.

l) Sail guztiei orokorrean esleitutakoak eta, beraz, komunak izanik, indarreko legeen arabera Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Sailari dagozkion eskumenen kudeaketa egitea Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiarekin, antolaketarekin eta informatikarekin lotutako gaietan.

m) Sailaren jarduerarekin lotutako ondarezko erantzukizunei buruzko espedienteak ebaztea.

n) Sailari atxikitako langileak administratu eta kudeatzea, Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 10. artikuluak horri buruz zehaz-

a) La asistencia técnico-jurídica y administrativa al Consejero del Departamento.

b) Coordinar y canalizar, las relaciones del Departamento con el Tribunal Vasco de Cuentas Públicas.

c) Estructurar los Servicios Jurídicos del Departamento, los cuales prestarán asesoramiento jurídico a los órganos del Departamento y emitirán los informes en Derecho requeridos, sin perjuicio de las competencias que en este campo ostenta la Vicepresidencia del Gobierno.

d) La coordinación, elaboración en su caso, y control de la normativa emanada del Departamento.

e) Efectuar el seguimiento de los intereses del Departamento implicados en procedimientos judiciales y cooperar en su defensa, a través del órgano competente de la Vicepresidencia de Gobierno.

f) La tramitación y control de los expedientes y asuntos que hayan de ser sometidos al Consejo de Gobierno o a sus órganos delegados, así como la de aquellas disposiciones y actos administrativos que hayan de publicarse en el Boletín Oficial del País Vasco o en cualquier otro diario oficial.

g) Ser el órgano de contratación del Departamento.

h) Elaborar el Anteproyecto de Presupuesto del Departamento, así como coordinar el seguimiento del mismo y, en general, la gestión económica y presupuestaria del Departamento.

i) Programar, coordinar y, en su caso, elaborar estudios y memorias de contenido económico en las áreas de competencia del Departamento.

j) Llevar a cabo la contabilidad del Organismo Pagador de los gastos de la Política Agrícola Común de la Unión Europea, en el ámbito exclusivo de la normativa comunitaria.

k) En colaboración con las Direcciones del Departamento, proponer y realizar la gestión de cuantas acciones sean precisas para garantizar el buen fin de las ayudas y subvenciones cuya concesión corresponda o haya correspondido al Departamento, de acuerdo con los programas subvencionales vigentes en cada momento.

l) Gestionar las competencias que, con relación a la legislación vigente, correspondan al Departamento de Agricultura, Pesca y Alimentación por tener el carácter de comunes, al venir atribuidas con carácter general a todos los Departamentos, en relación con las materias propias de la Hacienda General del País Vasco, Organización e Informática.

m) La resolución de los expedientes de responsabilidad patrimonial que se susciten en relación con la actividad del Departamento.

n) Administrar y gestionar al personal adscrito al Departamento, ejerciendo las competencias que al respecto determina el artículo 10 de la Ley 6/1989, de 6 de

ten dituen eskumenak erabiliz eta dekretu honen 3. artikuluan aurreikusitako salbuespena eginda. Hori guztia Ogasun eta Herri Administrazio Saileko organo eskudunei dagozkien eskuduntzak ezertan urratu gabe ulertu behar da.

ñ) Sailak langile-premiei buruz egindako aurreikuspenak ebaluatzea, eta saileko lanpostuen plantillak eta zerrendak proposatzea.

o) Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea/Instituto Vasco de Administración Públicarekin (HAEE/IVAP) lankidetzan, langileen prestakuntza eta hobekuntzako planak eta programak sustatzea.

p) Organo eskudunek langileei buruz lortutako akordioen eta hartutako erabakien berri zuzena ematea saileko zerbitzuei, jakinaren gainean egon daitezen, eta akordio eta erabakiok betetzen direnentz begiratzea.

q) Lanpostuen banaketa fisikoarekin, ekipamenduarekin eta eraberritze-lanekin zerikusia duten saileko unitate guztien jardunak zuzentzea, Ogasun eta Herri Administrazio Sailari gai honetan esleitutako eskumenak ezertan urratu gabe. Horrez gain, saileko bulegoen barne-araubidea zaindu eta babestuko du, eta sailari atxikitako ondarea eta bere ekipamendua administratu eta iraunaraziko ditu.

r) Saileko beste organoekin batera eta Euskal Autonomia Erkidegoko organo eskudunekin batera koordinaturik, saileko zerbitzuen eta sailean erabiltzen diren lan-sistema eta metodoen barne-egituraketari, arrazoizko antolamenduari, kudeaketa digitalari eta informatizazioari buruzko proposamenak prestatzea.

s) Saileko Erregistro Nagusia, Agiritegia, Liburutegia eta gainontzeko agiri-zentroak antolatu eta zuzentzea, Ogasun eta Herri Administrazio Saileko organo eskudunei dagozkien eskuduntzak ezertan urratu gabe.

t) Sailean kalitate-ereduak diseinatu eta garatzea.

u) Administrazioaren eraberritze eta modernizazioko organo eskudunak bultzatutako ekimen eta irizpideak Sailaren barruan garatu eta gauzatzeko behar den euskarria bermatzea.

v) Hiritarrei informazioa eta arreta eskaintzeko zerbitzuen funtzionamendu ezin hobea bermatzea (2. eta 3. arreta-mailak), eta Zuzenean-Jaurlaritzaren Hiritarren Arretako Zerbitzuarekin harreman egokiak izatea, bere eskumen-arloko gaietan solaskide egokiak jarriz.

w) Aurreko idatz-zatietan aipatutako egitekoekin lotuta, zuzendaritza honi eslei dakizkion beste egiteko guztiak.

julio, de la Función Pública Vasca, con la salvedad prevista en el artículo 3 del presente Decreto; todo ello sin perjuicio de las atribuciones que correspondan a los órganos competentes del Departamento de Hacienda y Administración Pública.

ñ) Evaluar las previsiones de necesidades de personal efectuadas por el Departamento, y realizar las propuestas para la elaboración de las plantillas y de relaciones de puestos de trabajo en el mismo.

o) Promover, en colaboración con el Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea/ Instituto Vasco de Administración Pública (HAEE / IVAP), planes y programas de formación y perfeccionamiento del personal.

p) Mantener adecuadamente informados a los servicios del Departamento de los acuerdos y resoluciones relativos al personal adoptados por los órganos competentes, vigilando el cumplimiento de los mismos.

q) Dirigir las actuaciones de las distintas unidades del Departamento relacionadas con la distribución física y equipamiento de puestos de trabajo y obras de reforma, sin perjuicio de las competencias asignadas en esta materia al Departamento de Hacienda y Administración Pública. Atender y cuidar el régimen interior de las dependencias del Departamento y la administración y conservación del patrimonio adscrito al mismo y de sus equipamientos.

r) Elaborar propuestas sobre la organización interna, racionalización y administración digital e informatización de los servicios del Departamento y de los sistemas y métodos de trabajo en el mismo, en forma coordinada con los demás órganos del Departamento y con los órganos competentes de la Administración de la Comunidad Autónoma.

s) Organizar y dirigir el Registro General, el Archivo, la Biblioteca y los demás centros de documentación del Departamento, sin perjuicio de las atribuciones que correspondan a los órganos competentes del Departamento de Hacienda y Administración Pública.

t) Diseñar y desarrollar modelos de calidad en el Departamento.

u) Garantizar el soporte necesario para desarrollar y ejecutar, en el ámbito del Departamento, las iniciativas y directrices dictadas por el órgano competente en materia de reforma y modernización de la Administración.

v) Asegurar el óptimo funcionamiento de los servicios de información y atención al ciudadano del Departamento (niveles 2 y 3 de atención), así como articular adecuadamente las relaciones con el Servicio de Atención al Ciudadano del Gobierno-Zuzenean, asegurando la existencia de interlocutores operativos en las diferentes materias de su ámbito competencial.

w) Cualesquiera otras funciones que le fueran encomendadas en relación con las señaladas en los apartados anteriores.

III. KAPITULUA
SAILBURUORDETZAK ETA ZUZENDARITZAK

1. SEKZIOA
EGINKIZUN OROKORRAK

*6. artikulua.–* Sailburuordeak.

Sailburuaren mendeko zuzen eta hierarkikoak izanik, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura sailburuordeek bete beharreko egitekoak hauek dira:

a) Sailburuordetzaren jarduerak eta haren mendeko zuzendaritzen, organoen eta administrazio-atalenak zuzendu, koordinatu, bultzatu eta ikuskatzea.

b) Jarduteko politikak prestatu eta sailburuari proposatzea.

c) Sailburuordetzaren mendeko zerbitzuei eta organoei eman beharreko jarraibide eta aginduak ematea, behar bezala jardun dezaten.

d) Sailburuari laguntza teknikoa ematea, zeinek bere ardurapeko gaietan.

e) Xedapen-proiektuetarako proposamenak egitea, ezarritako jardun-politikarekin bat etorriz.

f) Sailburuordetzaren mendeko zuzendariek emandako erabakien aurka jartzen diren errekurtsoak ebaztea.

g) Sailburuak haien esku uzten dituen egitekoak eta ahalmenak erabiltzea, Gobernuaren ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 39. artikuluan eta hurrengoetan zehaztutakoaren arabera.

h) Indarrean dagoen antolamendu juridikoak esleitzen dizkien gainontzeko egitekoak, edota, Jaurlaritzako sailburuordeei orokorrean esleitutakoak izanik, komunak diren gainontzeko egitekoak.

*7. artikulua.–* Zuzendariak.

Dagokion sailburuordearen, edo, Sailburuaren Kabineteko zuzendari eta Zerbitzu Orokorren zuzendariaren kasuan sailburuaren mendeko zuzen eta hierarkikoak izanik, zuzendariek honako egiteko orokor hauek izango dituzte.

a) Zuzendaritzako barne-zerbitzuak eta lan-sistemak antolatzea, organo eskudunek ezarritako arauekin bat etorriz.

b) Zuzendaritzako jarduerak programatu, bultzatu, zuzendu, koordinatu eta kontrolatzea, goragoko organoak emandako jarraibideen arabera.

c) Zeinek bere eskumen-eremuko planak edo jardun-programak proposatzea organo arduradunei.

d) Esleituta dituzten eginkizunak betetzeko behar diren administrazio-egintzak ematea.

CAPÍTULO III
DE LAS VICECONSEJERÍAS Y DIRECCIONES

SECCIÓN 1.ª
FUNCIONES GENERALES

*Artículo 6.–* Viceconsejeros del Departamento.

Corresponde a los Viceconsejeros del Departamento, bajo la dependencia directa y jerárquica del Consejero, el ejercicio de las siguientes atribuciones generales:

a) Dirigir, coordinar, impulsar y supervisar las actuaciones de la Viceconsejería, así como de las Direcciones y demás órganos y unidades administrativas dependientes de la misma.

b) Elaborar y proponer al Consejero políticas de actuación.

c) Dictar instrucciones y órdenes de servicio dirigidas a los órganos y unidades dependientes de la Viceconsejería, en orden a su correcto funcionamiento.

d) Prestar asistencia técnica al Consejero en el ámbito de las funciones que tenga encomendadas.

e) Efectuar la propuesta de proyectos de disposiciones de conformidad con la política de actuación establecida.

f) Resolver los recursos interpuestos contra las resoluciones adoptadas por los Directores dependientes de su Viceconsejería.

g) Ejercer las funciones y potestades que les delegue el Consejero, conforme a lo previsto en el artículo 39 y siguientes de la Ley 7/1981, de 30 de junio, de Gobierno.

h) Cualesquiera otras funciones que les atribuya el ordenamiento jurídico vigente o tengan el carácter de comunes por venir atribuidas con carácter general a los Viceconsejeros del Gobierno.

*Artículo 7.–* Directores del Departamento.

Corresponde a los Directores del Departamento, bajo la dependencia directa y jerárquica del Viceconsejero correspondiente, o del Consejero en el caso del Director del Gabinete del Consejero y del Director de Servicios Generales, el ejercicio de las siguientes atribuciones generales:

a) Organizar los servicios internos y sistemas de trabajo de la Dirección, de acuerdo con las normas establecidas por los órganos competentes.

b) Programar, impulsar, dirigir, coordinar y controlar las actividades de la Dirección, de conformidad con las instrucciones recibidas del órgano superior.

c) Proponer a los órganos de los que dependan los planes o programas de actuación en las materias atribuidas a su competencia.

d) Dictar los actos administrativos correspondientes para la ejecución de las funciones a ellos atribuidas.

e) Errekurtsoak ebaztea, indarreko arauek aurreikusitako kasuetan.

f) Aplikatu beharreko arautegi sektorialean aurreikuspen espezifikorik egon ezean, zigor-espedienteak ireki eta ebaztea, zeinek bere eskumen-eremuaren barruan.

g) Indarrean dagoen antolamendu juridikoak esleitzen dizkien gainontzeko egitekoak, edota, Jaurlaritzako zuzendariei orokorrean esleitutakoak izanik, komunak diren gainontzeko egitekoak.

2. SEKZIOA
NEKAZARITZAREN ETA ARRANTZAREN GARAPENEKO SAILBURUORDETZA

***8. artikulua.***– Nekazaritzaren eta Arrantzaren Garapeneko Sailburuordetza.

1.– Sailburuaren mendeko zuzen eta hierarkikoa izanik, Nekazaritzaren eta Arrantzaren Garapeneko Sailburuordetzari ondoko jardun-arlo hauek zuzendu eta koordinatzea dagokio:

a) Nekazaritzaren sustapena eta antolamendua.

b) Nekazaritzako eta abeltzaintzako egituren erreforma.

c) Merkatuetan esku hartzea, Erakunde Ordaintzaileak bere gain hartutako eskumenen esparruan.

d) Ordainketak eta Europako laguntzak.

e) Landa-garapeneko programen kudeaketa, sailaren eskumen-eremuaren barruan.

f) Landa-garapenarekin eta nekazaritza-sektorearen funtzioaniztasunarekin zerikusia duten politika eta arautegi europarrak garatu eta kudeatzea.

g) Erakunde eskudunei landa-garapeneko ekimenak proposatzea, Landa Garapeneko apirilaren 8ko 10/1998 Legean aurreikusitako helburuak lortzeko, eta Landaberriren baitan sortzen diren lan-taldeen jarduna bultzatzea.

h) Landa Garapeneko Legearen arabera Landaberriren txostena behar duten gaiak prestatu eta bultzatzea.

i) Mahastizaintzaren antolamendua eta araubidea, maiatzaren 7ko 5/2004 Legearekin bat etorriz.

j) Animaliak eta zoologia-guneak babesteko eta kontrolatzeko araubidea, animaliak babesteko urriaren 29ko 6/1993 Legearekin bat etorriz.

k) Nekazari-taldeak eta landa-garapeneko elkarteak sustatzea eta horiekin harremanetan egotea.

l) Euskal Autonomia Erkidegoko uretako arrantza, itsaski-bilketa eta akuikultura antolatzea, martxoaren 13ko 6/1998 Legearekin bat etorriz.

m) Arrantza-egituren plangintza eta sustapena.

e) Resolver recursos en los supuestos previstos en la normativa vigente.

f) En defecto de previsión específica en la normativa sectorial aplicable, la incoación y resolución de expedientes sancionadores en las áreas de su competencia.

g) Cualesquiera otras funciones que les atribuya el ordenamiento jurídico vigente o tengan el carácter de comunes por venir atribuidas con carácter general a los Directores del Gobierno.

SECCIÓN 2.ª
VICECONSEJERÍA DE DESARROLLO AGRARIO Y PESQUERO

***Artículo 8.***– Viceconsejería de Desarrollo Agrario y Pesquero.

1.– Corresponde a la Viceconsejería de Desarrollo Agrario y Pesquero, bajo la dependencia directa y jerárquica del Consejero, la dirección y coordinación de las siguientes áreas de actuación:

a) Promoción y ordenación agraria.

b) Reforma de las estructuras agrícolas y ganaderas.

c) Intervención de los mercados en el marco de las competencias asumidas por el Organismo Pagador.

d) Pagos y ayudas comunitarias.

e) Gestión de los programas de desarrollo rural en el ámbito de las competencias del Departamento.

f) Desarrollo y gestión de las políticas y reglamentos europeos relacionadas con el desarrollo rural y el carácter multifuncional del sector agrario.

g) Realización de propuestas a las instituciones competentes de iniciativas sobre desarrollo rural en relación con los objetivos previstos en la Ley 10/ 1998, de 8 de abril, de Desarrollo Rural, así como el impulso de la actividad de los grupos de trabajo que se creen en el seno de Landaberri.

h) Elaboración e impulso de los asuntos que tienen que ser informados por Landaberri con arreglo a la Ley de Desarrollo Rural.

i) Ordenación y régimen de la viticultura, conforme a la Ley 5/2004, de 7 de mayo.

j) Régimen de protección y control de los animales y de los núcleos zoológicos de acuerdo a la Ley 6/1993, de 29 de octubre, de Protección de los Animales.

k) Promoción y relación con agrupaciones de productores agrarios y asociaciones de desarrollo rural.

l) La ordenación de la pesca en aguas territoriales de la Comunidad Autónoma del País Vasco, el marisqueo y la acuicultura, conforme a la Ley 6/1998, de 13 de marzo.

m) La planificación y el fomento de las estructuras pesqueras.

n) Urpekaritza profesionala.

ñ) Arrantzaleen kofradiak, arrantzako elkarte profesionalak eta arrantzako ekoizleen erakundeak.

o) Arrantza-eskualdeen garapen sozio-ekonomikoa, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Sailaren eskumenen barruan.

p) Nekazaritzako, landa-inguruneko eta nabigazio eta arrantzako prestakuntza. Kirol-nabigazioko irakaskuntza.

2.– Hierarkikoki Nekazaritzaren eta Arrantzaren Garapeneko Sailburuordetzaren mende daude Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritza, Arrantza eta Akuikultura Zuzendaritza, eta Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko Zuzendaritza.

***9. artikulua.***– Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritza.

Nekazaritzaren eta Arrantzaren Garapeneko sailburuordearen mendeko zuzen eta hierarkikoa izanik, Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzak bete beharreko egitekoak hauek dira:

a) Nekazaritzako ustiategien ekoizpen-egituren lehiakortasuna hobetzeko programak eta jarduerak egin eta koordinatzea, sustapenekoak barne.

b) Landareen ekoizpen eta osasuneko eta abereen ekoizpen eta osasuneko programak eta jarduerak egin eta koordinatzea, ekoizpen integratua eta ekologikoa barne, lurralde historikoen eskumenei eragin gabe eta horiekin koordinazioan.

c) Nekazaritzako produktuen Merkatu Antolaketa Komunari, prezioei eta konpentsazio-neurriei buruz Europar Batasunak egiten dituen politiken jarraipena eta haien inguruko proposamenak egitea, Sailburuaren Kabineteko Zuzendaritzaren lankidetzaz.

d) Nekazaritza Politika Bateratua (NPB) kudeatzeko jardun-programak prestatu eta koordinatzea.

e) Europar Batasuneko Nekazaritza Politika Bateratuak Euskal Autonomia Erkidegoan eragindako gastuen Erakunde Ordaintzailearen zuzendaritza-organoa izatea.

f) Animaliak babesteko neurriak garatzea, urriaren 29ko 6/1993 Legearekin bat etorriz.

g) Nekazaritza eta abeltzaintzako merkatuetan esku hartzeko eta merkatuok arautzeko jarduna kudeatzea.

h) Natur baliabideen kutsadura saihestu edo gutxitzen duten laborantza-moduei buruzko programak egitea.

i) Europar Batasunak animalien osasun eta ongizatearen inguruan daukan arautegiaren ezarpena sustatzea.

n) El buceo profesional.

ñ) Las Cofradías de Pescadores, organizaciones profesionales pesqueras y agrupaciones de productores pesqueros.

o) El desarrollo socioeconómico, dentro de las competencias del Departamento de Agricultura, Pesca y Alimentación, de zonas pesqueras.

p) Formación agraria, del medio rural y náutico-pesquera. Enseñanzas náutico-recreativas.

2.– De la Viceconsejería de Desarrollo Agrario y Pesquero dependen jerárquicamente la Dirección de Agricultura y Ganadería, la Dirección de Pesca y Acuicultura y la Dirección de Desarrollo Rural y Litoral.

***Artículo 9.***– Dirección de Agricultura y Ganadería.

Corresponde a la Dirección de Agricultura y Ganadería, bajo la dependencia directa y jerárquica del Viceconsejero de Desarrollo Agrario y Pesquero, el ejercicio de las siguientes atribuciones:

a) Elaborar y coordinar programas y actuaciones, incluidas las de fomento, dirigidas a la mejora de la competitividad de las estructuras productivas de las explotaciones agrarias.

b) Elaborar y coordinar programas y actuaciones en materia de producción y sanidad vegetal y de producción y sanidad animal, incluyendo las producciones integrada y ecológica, sin perjuicio de las competencias de los Territorios Históricos y en coordinación con ellos.

c) Elaborar las propuestas y efectuar el seguimiento de las políticas de la UE en materia de la Organización Común de Mercados de productos agrarios, precios y medidas compensatorias, en coordinación con la Dirección del Gabinete del Consejero.

d) Elaborar y coordinar programas de gestión de la Política Agrícola Común (PAC).

e) Actuar como órgano de dirección del Organismo Pagador de los gastos de la Política Agrícola Común de la Unión Europea en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

f) Desarrollar las medidas de protección de los animales, de conformidad con la Ley 6/1993, de 29 de octubre.

g) Gestionar la intervención y regulación de mercados agrícolas y ganaderos.

h) Elaborar programas de prácticas agrarias que eviten o reduzcan la contaminación de los recursos naturales.

i) Promover la implantación de las prácticas de las normativas comunitarias sobre salud y bienestar animal.

j) Mintegiko hazien eta landareen antolamendu, kontrol eta ekoizpena.

k) Nekazari Ganberekiko eta Landa Errentamenduen Tartekaritza Batzekiko harremanetarako organoa izatea.

l) Eraldaketako nekazaritza-sozietateen eraketa, erregistroa eta kontrola kudeatzea.

m) Martxoaren 30eko 84/1993 Dekretuan Nekazaritzako Ustiategien Erregistroari buruz aurreikusten diren eginkizunak betetzea.

n) Landa Errentamenduen Erregistro Berezia kudeatzea.

ñ) Mahastizaintzako erregimena kudeatzea.

o) Euskal Autonomia Erkidegoko nekazari-taldeak eta horien elkarteak aitortu, erregistroetan jaso eta sustatzea, urtarrilaren 20ko 13/2004 Dekretuarekin bat etorriz.

***10. artikulua.***– Arrantza eta Akuikultura Zuzendaritza.

Nekazaritzaren eta Arrantzaren Garapeneko sailburuordearen mendeko zuzen eta hierarkikoa izanik, Arrantza eta Akuikultura Zuzendaritzak bete beharreko egitekoak hauek dira:

a) Arrantza-enpresen lehiakortasuna hobetzeko, diru-laguntzak dibertsifikatzeko programak diseinatu eta gauzatzea.

b) Diru-laguntzen artikulazioa proposatzea eta jardun-arlo guztietako programak eta jarduerak prestatu eta betetzea, Europar Batasuneko arauekin bat etorriz.

c) Itsaski-bilketa eta akuikultura antolatu, kudeatu eta sustatzea.

d) Itsasoko kirol-arrantza antolatu eta kudeatzea, eta dagozkion baimenak luzatzea.

e) Euskal Autonomia Erkidegoko arrantza-flotari laguntza eta babesa ematea, hala egiteko eskatzen duen egoera berezirik suertatuz gero.

f) Arrantza-sektorerako ezarritako tresna eta bermeekin loturiko neurriak kudeatu eta bultzatzea, arrantza-eskubideen erabilera kolektiboari eta antzerakoei dagokienean, batez ere.

g) Arrantzako elkarte profesionalekiko, arrantzako ekoizleen taldeekiko eta ekainaren 25eko 16/1998 Legeak arautzen dituen arrantzaleen kofradiekiko harreman-organoa izatea.

h) Arrantza-sektorearen beharrizan eta berezitasunentzako finantza-tresna egokiak aztertu eta sustatzea.

i) Arrantzaren Orientazioko Finantza Tresna Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan ezartzea, eta Autonomia Erkidegoaren ordezkari izatea Jarraipen Batzordean.

j) Ejecutar actuaciones de ordenación, control y producción de semillas y plantas de vivero.

k) Ser el órgano de relación con las Cámaras Agrarias y las Juntas Arbitrales de Arrendamientos Rústicos.

l) Gestionar la constitución, registro y control de las Sociedades Agrarias de Transformación.

m) Desarrollar las funciones relativas al Registro de Explotaciones Agrarias, previstas en el Decreto 84/1993, de 30 de marzo.

n) Gestionar el Registro Especial de Arrendamientos Rústicos.

ñ) Gestionar el régimen de la viticultura.

o) Efectuar el reconocimiento, registro y promoción de agrupaciones de productores agrarios y sus uniones en la Comunidad Autónoma, conforme al Decreto 13/2004, de 20 de enero.

***Artículo 10.***– Dirección de Pesca y Acuicultura.

Corresponde a la Dirección de Pesca y Acuicultura, bajo la dependencia directa y jerárquica del Viceconsejero de Desarrollo Agrario y Pesquero, el ejercicio de las siguientes atribuciones:

a) Diseñar y ejecutar programas dirigidos a la diversificación de ayudas económicas para la mejora de la competitividad de las empresas pesqueras.

b) Proponer la articulación de subvenciones y elaborar y ejecutar programas y actuaciones en todos sus ámbitos de intervención, de acuerdo con la reglamentación de la Unión Europea.

c) Ordenar, gestionar y promover el marisqueo y la acuicultura.

d) Ordenar y gestionar la pesca marítimo-deportiva y expedición de las correspondientes licencias.

e) Asistir y apoyar a la flota pesquera de la Comunidad Autónoma del País Vasco, en situaciones especiales que lo hagan preciso.

f) Gestionar y promover las medidas correspondientes en relación con los instrumentos y garantía establecidos para el sector pesquero y, en especial, en lo relativo a la utilización colectiva de derechos de pesca y similares.

g) Ser el órgano de relación con las Cofradías de Pescadores reguladas por la Ley 16/1998, de 25 de junio, así como con las organizaciones profesionales pesqueras y agrupaciones de productores pesqueros.

h) Analizar y promover los instrumentos financieros adecuados a las necesidades y especificidades del sector pesquero.

i) Aplicar el Instrumento Financiero de Orientación de la Pesca en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco, representando a ésta en el correspondiente Comité de Seguimiento.

j) Itsas Arrantzari buruzko martxoaren 13ko 6/1998 Legeak ezarritako lizentzia, baimen edo emakidak ematea, eta legean jasotzen diren erregistro eta gainontzeko tresnen ardura hartzea.

k) Arrantza-ikuskapenaren arloan Euskal Autonomia Erkidegoari dagozkion eskumenak betetzea, Arrantza Ikuskaritzako Zerbitzuaren jardun eraginkorra bermatzeko behar diren jarduerak eginez.

l) Estatuko Portuei eta Merkataritzako Nabigazioari buruzko azaroaren 24ko 27/1992 Legearen 21.5 artikuluan aurreikusitako txostena egitea, Euskal Autonomia Erkidegoaren itsasoan isurketak egiteko baimenak emateko, baimen horiek aldi baterako indargabetzeko, aldatzeko edo iraungitzeko ebazpenak egin aurretik.

***11. artikulua.***– Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko Zuzendaritza.

Nekazaritzaren eta Arrantzaren Garapeneko sailburuordearen mendeko zuzen eta hierarkikoa izanik, Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko Zuzendaritzak bete beharreko egitekoak hauek dira:

a) Landa Garapeneko apirilaren 8ko 10/1998 Legean xedatutakoaren ondorioz Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Sailari dagozkion eskumen guztiak bultzatu, bete eta koordinatzea.

b) Landaberriri behar duen laguntza tekniko eta administratiboa ematea.

c) Landa-garapeneko jardun-programak prestatu eta koordinatzea, Europar Batasunaren arau eta ekimenen esparruan.

d) Landa-garapenaren arloan Europar Batasuneko arau, plan eta programak garatzeko ezartzen diren batzorde eta kide anitzeko erakundeetan Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Sailari dagozkion ordezkaritza eta eginkizunak betetzea.

e) Mendi-nekazaritzako eskualdeetarako eta alde behartsuetarako programak egin eta koordinatzea.

f) Agente ekonomiko eta sozialek landa-garapeneko plan eta programetan parte hartzeko modua bultzatu eta garatzea.

g) Landa-eremuetako jardun ekonomikoa dibertsifikatzeko jarduerak egitea eta landa-ingurunearen funtzioaniztasunari eustea.

h) Landa-ingurunean enpresa txiki eta ertainak sortzeko erraztasunak eta laguntza ematea.

i) Landa-garapeneko elkarteak sustatzea eta horiekin harremanetan egotea.

j) Nekazaritzako eta landa-garapeneko prestakuntza antolatu eta sustatzea.

k) Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari nekazaritza-eta landa-gaietako heziketa arautuko ikasketa-programak proposatzea.

j) Otorgar las licencias, autorizaciones y concesiones que establece la Ley 6/1998, de 13 de marzo, de Pesca Marítima, así como la llevanza de los registros y demás instrumentos que la citada Ley contempla.

k) Ejercer las competencias que le correspondan a la Comunidad Autónoma del País Vasco en materia de inspección pesquera, realizando las actuaciones necesarias para garantizar un funcionamiento eficaz del Servicio de Inspección Pesquera.

l) Emitir el informe previsto en el artículo 21.5 de la Ley 27/1992, de 24 de noviembre, de Puertos del Estado y de la Marina Mercante, previo a las Resoluciones de otorgamiento, suspensión temporal, modificación o extinción de autorizaciones de vertidos en el mar territorial de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

***Artículo 11.***– Dirección de Desarrollo Rural y Litoral.

Corresponde a la Dirección de Desarrollo Rural y Litoral, bajo la dependencia directa y jerárquica del Viceconsejero de Desarrollo Agrario y Pesquero, el ejercicio de las siguientes atribuciones:

a) Impulsar, ejecutar y coordinar cuantas competencias correspondan al Departamento de Agricultura, Pesca y Alimentación en aplicación de lo prescrito en la Ley 10/1998, de 8 de abril, de Desarrollo Rural.

b) Prestar a Landaberri el necesario apoyo técnico y administrativo.

c) Elaborar y coordinar los Programas Operativos de Desarrollo Rural, encuadrados en las normas e iniciativas de la UE.

d) Ejercer la representación y funciones que corresponden al Departamento de Agricultura, Pesca y Alimentación en las comisiones y organismos colegiados que se establezcan para el desarrollo de las normas, planes y programas de la Unión Europea en materia de desarrollo rural.

e) Elaborar y coordinar programas de las zonas de agricultura de montaña y desfavorecidas.

f) Impulsar y desarrollar la participación de los agentes económicos y sociales en los Planes y Programas de Desarrollo Rural.

g) Ejecutar actuaciones de diversificación de la actividad económica en las zonas rurales y mantener la multifuncionalidad del medio rural.

h) Propiciar y apoyar la creación de pequeñas y medianas empresas en el medio rural.

i) Promoción y relación con asociaciones de desarrollo rural.

j) Ordenar y promover la formación en materia agraria y de desarrollo rural.

k) Proponer al Departamento de Educación, Universidades e Investigación los programas curriculares de formación reglada agraria y rural.

l) Lana antolatzeko eredu berrien garapena proposatzea, informazioaren teknologia berriak aplikatuz, landa-inguruneko enpleguaren lan-baldintzak eta bizi-kalitatea hobetu ahal izateko.

m) Nekazalturismoari dagozkion jarduerak burutzea.

n) Jardun-programak egin eta proposatzea, arrantza-eskualdeen gainbehera eragozteko, eta eskualde horiek Euskal Herriko gainontzeko eskualdeen parean jartzeko, garapen ekonomiko, sozial eta kulturalari dagokionez.

ñ) Arrantza-eskualdeetako azpiegitura eta zerbitzuak hobetzeko planak eta programak egin eta proposatzea.

o) Nabigazio eta arrantzako prestakuntza antolatzea eta kudeatzea.

p) Kirol-nabigazioko titulazio eta irakaskuntzak antolatzea eta kudeatzea.

q) Urpekaritza profesionala.

r) Herri-administrazioen politikak eta jarduerak koordinatzeko eta haiekin lankidetzan aritzeko proposamenak egitea, politika eta jarduera horiek eraginik badute n) idatz-zatian jasotako helburuetan.

s) Arrantza-eskualdeen garapenaren arloan Europar Batasuneko arau, plan eta programak garatzeko ezartzen diren batzorde eta erakunde kolegiatuetan Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Sailari dagozkion ordezkaritza eta eginkizunak betetzea, Sailburuaren Kabineteko Zuzendaritzarekin lankidetzan.

t) Mendikoi Nekazaritza Garapenerako Institutua, A.B. Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Sailari atxikitzearen ondoriozko eskumenak erabiltzea, eta landa-garapenaren arloan edo nekazaritza- eta landa-gaietako prestakuntza-arloan eginkizunen bat betetzen duten erakundeen jarraipen eta kontrola egitea, edo erakunde horien inguruan sailari esleitu zaizkion gainontzeko ahalmenak baliatzea.

3. SEKZIOA
ELIKAGAI POLITIKA ETA INDUSTRIAKO SAILBURUORDETZA

*12. artikulua.–* Elikagai Politika eta Industriako Sailburuordetza.

1.– Sailburuaren mendeko zuzen eta hierarkikoa izanik, Elikagai Politika eta Industriako Sailburuordetzari ondoko jardun-arlo hauek zuzendu eta koordinatzea dagokio:

a) Nekazaritza, arrantza eta elikagaien industriak sustatzea.

b) Nekazaritza, arrantza eta elikagaigintzako produktuak merkaturatzea.

c) Enologia, maiatzaren 7ko 5/2004 Legearekin bat etorriz.

l) Proponer el desarrollo de nuevos modelos de organización del trabajo, aplicando las nuevas tecnologías de la información, que posibiliten la mejora de condiciones laborales y calidad de vida del empleo rural.

m) Llevar a cabo las actuaciones correspondientes en materia de agroturismo.

n) Elaborar y proponer programas de actuaciones con el fin de detener el declive de las zonas pesqueras y dotarlas de un nivel de desarrollo económico, social y cultural equivalente a las restantes zonas del País Vasco.

ñ) Elaborar y proponer planes y programas en materia de mejora de las infraestructuras y servicios de las zonas pesqueras.

o) Ordenar y gestionar la formación náutico-pesquera.

p) Llevar a cabo la ordenación y gestión en materia de titulaciones y enseñanzas náutico-recreativas.

q) El buceo profesional.

r) Elaborar propuestas de coordinación y colaboración de las políticas y actuaciones de las diferentes Administraciones Públicas con incidencia en la consecución de los fines señalados en el apartado n).

s) Asumir la representación y funciones que correspondan al Departamento de Agricultura, Pesca y Alimentación en las comisiones y organismos colegiados que se establezcan para el desarrollo de las normas, planes y programas de la UE en materia de desarrollo de las zonas pesqueras, en coordinación con la Dirección del Gabinete del Consejero.

